

20 21

URTEKO MEMORIA

DONOSTIA KIROLA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Donostia Kirola

#KIROLTXARTELA



GURE MISIOA ETA IKUSPEGIA

MISIOA

Donostia Kirolak tokiko kirol-sistemaren funtzionamendu eraginkorra gidatu behar du, kalitatezko zerbitzu publiko baten bidez, gizarte- eta kirol-eragileen parte-hartzearekin, donostiar guztiek jarduera fisikoa eta kirol-jarduera egiteko aukera izan dezaten.

IKUSPEGIA

«Euskadin erreferentziako tokiko jarduera fisikoa eta kirola egiteko sistema duen udalerria izatea».



ARDATZ ESTRATEGIKOAK

A. Jarduera fisikoa eta kirol-jarduera zabaltzea

B. Hiria kirol-gune bihurtzea

C. Tokiko kirol-sistema integratua: kirol-zerbitzuen kalitatea.

D. Udalaren kirol-zerbitzuen kudeaketa iraunkorra: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa

E. Kudeaketa eta barne-antolaketa hobetzea



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Donostia Kirola


MEMORIA 2021



**KIROLA EGITEA ETA JARDUERA FISIKOA
BIZIMODU OSASUNGARRIA IZATEKO
OHITURA GISA**



KIROL PRAKTIKA DONOSTIAN (KIROL-OHITUREN INKESTA-2021)



Donostiarren kirol-jarduerak balio oso altuetan jarraitzen du. Herritarren % 70ek baino gehiagok, gutxienez, astean behin egiten dute kirola, eta horietatik %61ek 150 minutu baino gehiago ematen dituzte astean (OMEren gomendioa)


Kirola egiten duten pertsonen hazkunderik handiena emakumeei dagokie, 2017an % 69 izatetik 2021ean % 76 izatera igaro baitira, eta lehen aldiz gaintu dute gizonen kirol-jardueraren indizea

Emakumeek gehien egiten dituzten jarduerak oinez ibiltzea edo aretoko jardueretara joatea dira (ikastaroak); gizonak, berriz, runningaren edo gimnasia joatearen alde egiten dute gehien.




KIROL PRAKTIKA DONOSTIAN (KIROL-OHITUREN INKESTA-2021)

Gehien egiten diren kirolak - emakumeak




Gehien egiten diren kirolak - gizonak





INSTALAZIOETAKO ABONATUAK



Pandemiak eten egin du udal-kirol-instalazioaren batean (kudeaketa zuzena eta zeharkakoa) abonaturako biztanleriaren ehunekoaren goranzko joera. 2020an hasitako beherakadak 2021ean jarraitu du, baina intentsitate txikiagoarekin: % 6,5 jaitsi da 2020arekin alderatuta, eta % 16ko jaitsiera metatua izan da azken bi urteetan. Horrek esan nahi du 9.000 pertsona gutxiago daudela instalazio horietan abonatuta. Abonatu kopurua gehien jaitsi den instalazioetako bat Zuhaizti izan da, kudeatzailea aldatzeagatik eta hainbat hilabetez ixtea ekarri zuten obrak egiteagatik.

Kirol txartelerako abonua harpidetza guztien % 87 da, eta abonatu gehien dituen kudeaketa ez zuzeneko instalazioa Ondarreta Tenisa da.


INSTALAZIOETAKO ABONATUAK

Kirol txartelaren abonuari dagokionez, 2021a 42,731 abonaturekin amaitu zen, hau da, 2020an baino % 11 gutxiago, eta % 13,5eko jaitsiera metatua 2020tik.

Auzoen arabera banaketari dagokionez, Antigua eta Amara Berria dira Kirol Txarteleko abonatu gehien dituztenak. Hala ere, abonatu beharakada handiena Antiguu-Bentaberri aldean gertatu da, eta Loiola-Martutene, Egia edo Gros bezalako zonetan abonatu kopuruak gora egin du, Erriberako eta Zuhaiztiko gimnasio berrien eraginez.


Bestalde, gizonen eta emakumeen arteko banaketa nahiko orekatua da, emakumeen ehunekoak goranzko joera txikia baitu guztizkoaren aldean, abonatu pertsonen % 46,5 baitira dagoeneko. Azpimarratzekoa da, halaber, 65 urtetik gorako abonatu ehunekoak bere horretan jarraitzen duela, guztizkoaren % 9,4 baitira (2019an baino % 0,3 gehiago).

Azkenik, azpimarratu behar da pandemiak sortutako egoera berriari erantzuteko 2021ean sortutako abonatu-modalitate berriek harrera oso ona izan dutela, bereziki 30 eguneko abonatu malguak, 7.000 pertsonak baino gehiagok kontratatu baitute.




INSTALAZIOETAKO ABONATUAK

Jatorrizko auzoarekiko abonatuak - 2021



Abonatuak adina eta generoaren arabera - 2021






KIROL JARDUERETAKO KANPAINAK


Lehenik eta behin, azpimarratu behar da, bi urte hauetan zehar bizi izandako egoera zaila gorabehera, Donostia Kirolak bere kirol-kanpaina guztiak eskaintzen jarraitu duela, Covid19ren aurkako segurtasun-neurriak egokituta. Logikoa denez, parte-hartze globalak behera egin du, neurri batean instalazioak ixtean ikastaro asko bertan behera geratu direlako eta, neurri batean, izena eman duten pertsona gutxiago daudelako eta jardueren edukiera murriztu delako.

Nolanahi ere, 27.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute antolatutako hiru kanpaina handietako jardueraren batean. Gainera, 4.890 pertsonak hartu dute parte abonatuak eskaintako doako kirol-jardueren kanpainetako batean.





KIROL JARDUERETAKO KANPAINAK



Udako kirol-jardueren UDA kanpaina izan da parte-hartzeari dagokionez hobekien erantzun duena, pandemiaren aurreko urteetako kanpainetan erregistratutakoen antzeko datuak mantenduz. 2021ean % 8,8ko igoera erregistratu da 2020ko datuen aldean, nahiz eta parte-hartzea aurreko urteetakoa baino % 5 txikiagoa izan.


Kirol Ekintzak Kanpaina beherakada handia izan da, 2018/19 ikasturtean baino % 28 gutxiago, nahiz eta jaitsiera horretan Zuhaitziren itxierak eta, ondorioz, ikastaroen eteteak ere garrantzi handia izan duten.

Kirol saioetan Aukeran programaren bidez (asteko jarduera-parrilla) parte hartzea berreskuratu egin da 2019ko datuekin alderatuta, programa malgu horrek herritarren artean duen harrera onaren erakusgarri.




KIROL JARDUERETAKO KANPAINAK

Kirol Ekintzak Kanpaina parte hartzea




Aukeran programaren bidez egindako saioak






KIROL JARDUERETAKO KANPAINAK

Eskolako Igeriketa Kanpainan parte hartzea



Beste kanpaina batzuetan parte hartzea




PIZTU! PROGRAMA

Piztu! programa jarduera fisikoa egiteko preskripzio, orientazio eta aholkularitzako doako zerbitzu bat da, aktibo ez dauden pertsonen zuzendua, eta 2017/18 ikasturtean jarri zen abian. Zerbitzua Osakidetzarekin lankidetzan ematen da, eta 2021ean hiriko kiroldegietan eta osasun-zentro guztietan eta osasun mentaleko zentroetan zabaltzen da.

Programa honetan sartzen diren jardueretan (banakako aholkularitza, osasun-taldeak, etab.) izandako parte-hartzeak etengabeko hazkundea izan zuen programa hasi zenetik, baina 2020/21ean bihurritu egin zen, besteak beste osasun-zentroetan eskaintako zerbitzua aldi baterako etetea eragin zuten murrizketen ondorioz.

2021/22 ikasturtean zerbitzua berriz erabilgarri dago osasun zentro eta kiroldegi guztietan, eta hasierako datuek erakusten dute jarduera nabarmen hazten ari dela.




UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK

Kirol-instalazioetan erregistratutako erabileren kopurua, 2020an instalazioak ixtearen ondorioz nabarmen jaitsi zena, 2021ean berreskuratzen hasi da, edukiera-murrizketak eta eskola- eta federazio-lehiaketak desagertzen joan diren heinean. Zehazki, erabilerak % 85 igo dira 2020. urtearekin alderatuta

Paco Yoldi Udal Kiroldegia da donostiarrek gehien erabiltzen duten instalazioa, eta ondoren Bentaberri Kiroldegia. Zuhaiztiko kiroldegia erabilera-jaitsiera handia izan du, hobekuntza-obrak direla-eta bost hilabetez itxita egon delako.


Udal Kirol Instalazioetako erabilerak






UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK


Igerilekua duten instalazioen erabilerak - 2021



Igerilekurik gabeko instalazioen erabilerak- 2021



Futbol zelaietako erabilera - 2021 (Zenbatespena)





DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Donostia Kirola

MEMORIA 2021




KIROL-ERAGILEAK: EZINBESTEKO ALIATUAK



KIROLAREN SUSTAPENA

Donostia Kirolak emandako diru-laguntzen zenbatekoa % 9 igo da 2020arekin alderatuta, nahiz eta 2019koa baino % 10 txikiagoa izan, herri-probak eta kirol-ekitaldiak murriztu direlako. Nolanahi ere, klub eta ikastetxeei ematen zaizkien diru-laguntzen partida % 5 handitu da 2021ean, 840.000 €-ra iritsi arte.



Diru-laguntza horien zenbatekoaren % 65 norgehiagoka-prozeduraren bidez eman da (urteko deialdia), % 28 diru-laguntza izendunak izan dira, eta gainerako % 7 zuzeneko diru-laguntzetara bideratu da.



LEHIAKETA OFIZIALAK

En el curso 2020/21 no ha habido competiciones de deporte escolar, por lo que no se recoge el dato de participación. En todo caso, la tendencia de los últimos años indica un nivel muy alto de participación, superior al 70% de la matrícula.



Kirol federatuan % 12 jaitsi da kirol-lizentzien kopurua 2019ko datuarekin alderatuta, eta azken urteetan egonkor mantendu diren 10.000 lizentzia federatuen helburutik jaitsi da.



KIROL FEDERATUAN BERDINTASUNA SUSTATZEA

Emakumezkoen lizentzia federatuen ehunekoa egonkor mantendu da % 34 inguruan azken lau urteetan, eta ehuneko hori zertxobait handiagoa da kadete eta gazte kategorietan.

Emakumeen kirolari emandako aparteko diru-laguntzak % 31 gehitu dira azken lau urteetan.






HERRI PROBAK

2021ean hasi dira herri-probetan parte hartzea berreskuratzen, 2020ko martxotik jarduera guztiak bertan behera geratu ondoren. Bereziki nabarmendu behar da Behobia-SS lasterketa herrikoia edo Donostiako San Silvestre lasterketa aurten egin direla berri.

Hala ere, mota horretako aktibitateak gutxiago antolatu direnez, 2021ean parte-hartzea 2019koaren erdia izan da.



KIROL EKITALDIAK

Osasun-egoeraren ondorioz, antolatutako kirol-ekitaldien kopurua 2019ra arte indarrean zegoen 40 ekitaldien batez bestekoa baino askoz txikiagoa izan da. Hala ere, nabarmendu behar da 2021ean ekitaldi garrantzitsuak berreskuratu direla, hala nola Donosti Cup, Maratoia edo Nazioarteko Krosa.

KIROL EKITALDIAK 2021	HILABETEA
Nazioarteko Merche Usal Eskrima Txapelketa	Maiatza
Donosti Cup	Uztaila
Nazioarteko estropada V. Munilla	Uztaila
Klasika txirindularitza SS-SS	Uztaila
Urrezko Kopa - zaldi lasterketak	Abuztua
Pilota profesionala	Abuztua
Urrezko Kopa- Aizkolariak	Abuztua
Nazioarteko Egiako Eskubaloia Txapelketa	Abuztua
Kontxako Estropadak	Iraila
Europa League: Real Sociedad - Monaco	Iraila
Nazioarteko Opena Bay Rowing	Urria
Pilota profesionala	Urria
Europa League Eskubaloia : BERA BERA-Paris2	Urria
Europa League eskubaloia : BERA BERA-Ramnicu Valcea	Azaroa
Donostiako Maratoia	Azaroa
Arte martzialen nazioarteko txapelketa dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat	Azaroa
Behobia-SS Lasterketa	Azaroa
Nazioarteko Donostiako Krosa	Azaroa
Europa League: Real Sociedad - Sturm Graz	Azaroa
Europa League: Real Sociedad - PSV Eindhoven	Abendua



GOI MAILAKO TALDEAK (máxima categoría en cada modalidad deportiva)

2021ean, bakar batean jaitsi da bere kirol-modalitateko kategoria goreneko taldeen kopurua, GBCCren kategoria-jaitsierarekin. Guztira, 8 kirol modalitateko 14 talde dira. Aipatzekoa da, berriz ere, emakumezkoen kirola, 14 taldeetatik 9rekin, Donostia erreferentea dela esparru horretan aiderazten duen datua.

Donostia, 2021ean, Estatuko lehen hiriburua izan zen biztanleko eliteko emakumezkoen talde kopuruari dagokionez.

Era berean, garrantzitsua da azpimarratzea kirol-emaitzengatik Urrezko Kirol txartela irabazi duten kirolarien kopuru handia, eta, bereziki, zerrenda horretan sartutako emakumeen ehuneko handia (guztizkoaren % 53).

121

<u>Modalitatea</u>	<u>Emakumeak</u>	<u>Gizonak</u>
ESKUBALOIA	BERA BERA	
FUTBOLA	REAL SOCIEDAD	REAL SOCIEDAD
BELAR HOCKEY	REAL SOCIEDAD	
SASKIBALOIA	IDK-GIPUZKOA	
ATLETISMOA	ATLETICO SS	REAL SOCIEDAD
IZOTZ HOCKEY	CHH TXURI URDIN	CHH TXURI URDIN
CURLING	TXURI BERRI	TXURI BERRI
ARRAUNKETA	ARRAUN KIROLAK DONOSTIARRA	DONOSTIARRA

□

URREZKO KIROL TXARTELA

Gure kirolari nabarmenenak 2021ean

KIROLARIA	KIROLA	2021. URTEKO EMAITZAK
Sara Alonso Martinez	Atletismoa	Urrea Espainiako Txap. mendiko lasterketak
Andrea Martinez Murillo	Atletismoa	Brontzea Espainiako Disko Txap.
Erkki Zeberio Elizalde	Atletismoa	Zilarra Espainiako Luzera Txap sub23
Carlos Gonzalez Novo	Atletismoa egokituta	Urrea Espainiako Altuerako zakutxoak jaurtitzea Txap. Zilarra Espainia luzerako zakutxoak jaurtitzea
Unai Gonzalez Bergara	Atletismoa	Zilarra Txap. Espainiako pertika Txap
Clara Azurmendi Moreno	Badmintona	Urrea Austria Open Urrea Espainia banakako Txap. Urrea Espainia binakako Txap. Joku Olinpikoetan parte artesa
Ania Setien Erro	Badmintona	Munduko txapelketan parte artesa (selekzioa)
Enekoitz Asparren Irurzun	Txirrindularitza	Brontzea Espainiako Txap. sub23 CRI
Mikel Azparren Irurzun	Txirrindularitza	Partaidetza Munduko Txap. sub23 CRI
Alex Prior Majon	Eskrima (egokituta)	Urrea Espainiako Sable Txap. Zilarra Espainiako florete/Ezpata Txap.
Ramon Gonzalez Alonso	Eskrima (egokituta)	Urrea Espainia sable Txap. Zilarra Espainiako ezpata Txap Zilarra Espainiako florete Txap.
Ayem Oskoz Urrutikoetxea	Eskrima (egokituta)	Urrea Espainia sable Txap. Zilarra Espainiako ezpata Txap Zilarra Espainiako florete Txap.
Martin Zubimendi Ibañez	Futbola	Zilarra Joku Olinpikoetan
Nicolas Verdejo Aroca	Goalball	IBSA Goalball European Championships-en parte hartzea
Maria Villanueva Aperribay	Golf	Europa Golf txapelketan parte hartzea
Paula Balanzategui Garcia	Golf	Europa Golf txapelketan parte hartzea
Laura Garate Lecertua	Belar Hockeya	Zilarra Europako txapelketan sub-19 (selekzioa)
Lucia Casado de la Fuente	Belar Hockeya	Zilarra Europako txapelketan sub-19 (selekzioa)
Ane Carte Echeverria	Belar Hockeya	Zilarra Europako txapelketan sub-19 (selekzioa)
Ainhoa Huegun Barrena	Belar Hockeya	Zilarra Europako txapelketan sub-19 (selekzioa)
Ion Camio Lopez	Belar Hockeya	Brontzea Europako txapelketan sub-19
Iñigo Martínez de Albornoz	Mendiko Eskia	Munduko Kopan parte hartzea
Maidier Redin Pagalday	Igeriketa	Urrea Espainiako txap. (Tximeleta 50m)

URREZKO KIROL TXARTELA

Gure kirolari nabarmenenak 2021ean

KIROLARIA	KIROLA	2021. URTEKO EMAITZAK
Iñigo Llopis Sanz	Igeriketa egokituta	Urrea Espainiako Txap. (100m bizkarra) Urrea Europako Txap. (100m bizkarra) Zilarra Joku paralinpikoetan
Nahia Zudaire Borrezo	Igeriketa egokituta	Diploma olinpikoa
Ainhoa Elzaurdi Echeverria	Igeriketa egokituta	Brontzea Espainiako txap. (200 m libre)
Miren Lazkano Zuriarrain	Piraguismoa	Urrea Espainia Txap. (C1) Urrea Europako Txap. (C1) Zilarra Europako Txap. (patruilak)
Olatz Arregi Altuna	Piraguismoa	Brontzea Espainiako Txap. K1 Slalom Munduko sub23 txapelketan parte hartzea
Maite odriozola etxaniz	Piraguismoa	Munduko junior txapelketan parte hartzea
Pau Etxaniz Obradors	Piraguismoa	Munduko sub23 txapelketan parte hartzea
Nora Lopez agirreurreta	Piraguismoa	Munduko junior txapelketan parte hartzea
Markel Imaz Honsteins	Piraguismoa	Munduko junior txapelketan parte hartzea
Leire Goñi de Virgala	Piraguismoa	Munduko junior txapelketan parte hartzea
Malen Gutierrez Marrodan	Piraguismoa	Munduko junior txapelketan parte hartzea
Naroa Larruscain Carrion	Piraguismoa	Urrea Europako kayasurf txapelketan (Kayak Short)
Odei Etxeberria Delgado	Piraguismoa	Urrea Txap. Europa kayasurf 2021 Absoluta Kayak Short
Eñaut Calvo gAZTAÑAGA	Piraguismoa	Urrea Europako junior kayasurf txapelketan (Kayak Short)
Aiur Illarreta Beñaran	Piraguismoa	Urrea Europako junior kayasurf txapelketan (Kayak Long)
Xiang Messacasa Martinez	Piraguismoa	Zilarra Europako junior kayasurf txapelketan Women Short
Aitana Urbieta Arauso	Piraguismoa	Zilarra Europako junior kayasurf txapelketan Women Long
Peru barandiaran Lizarraga	Piraguismoa	Zilarra Europako junior kayasurf txapelketan Kayak Short
Olatz Garmendia Enparantza	Piraguismoa	Brontzea Europa kayasurf txapelketan Open Long Boat
Hodei Crujeiras Bello	Piraguismoa	Brontzea Europa kayasurf txapelketan Open Short Boat
Iñaki Urbe Olalla	Piraguismoa	Brontzea Europako junior kayasurf txapelketan Kayak Short
Irati Bordagaray	Piraguismoa	Partaidetza Europa kayasurf txapelketan
Imanol Garmendia Maiz	Arraunketa	Zilarra Espainiako Arraunketa txapelketan (aulki mugikorra)l
Koxme Burutaran Olaizola	Arraunketa	Urrea Espainiako Txap. 1x aulki mugikorra Urrea Espainiako Txap. 4x aulki mugikorra
Eduardo Blasco Alvarez	Salbamendua eta Sorospena	Urrea Espainiako txapelketan

URREZKO KIROL TXARTELA

Gure kirolari nabarmenenak 2021ean

KIROLARIA	KIROLA	2021. URTEKO EMAITZAK
<u>Ramon Dual Cortes</u>	<u>Slalom gurrpil aulkian</u>	<u>Urrea Espainia Txapelketan (100m Slalom)</u> <u>Brontzea Espainia Txap (100m krono)</u> <u>Brontzea Espainiako Txap (Slalom kanporaketa)</u>
<u>Alvaro Romero Villanueva</u>	<u>snowboard</u>	<u>Zilarra Munduko Kopan</u>
<u>Lucas Eguibar Breton</u>	<u>snowboard</u>	<u>Urrea Munduko Txapelketan</u>
<u>Ander Cepas Zapico</u>	<u>Mahai tenisa</u>	<u>Urrea Espainiako txapelketan</u>
<u>Olaia Martinez Gonzalez</u>	<u>Mahai tenisa</u>	<u>Urrea Espainiako txapelketan</u>
<u>Fernando Mitxelena Muguerza</u>	<u>Tiro egokituta</u>	<u>Munduko txapelketan parte hartzea</u>
<u>Gonzalo Fuentes Isasi</u>	<u>triathloia</u>	<u>Brontzea Espainiako txap (triathloia-distantzia ertaina)</u> <u>Brontzea Espainiako txap (duathloia-distantzia ertaina)</u>
<u>Marta Lizarraga Durandegi</u>	<u>Bela</u>	<u>Urrea Munduko txap, (J80 Bela)</u>
<u>Jaime Framis Harguindevy</u>	<u>Bela</u>	<u>Zilarra Europako Junior Txap (Waszp European Games)</u>
<u>Paul Emezabal Gutierrez</u>	<u>Bela</u>	<u>Brontzea Espainiako Txap (ILCA 4)</u>

TALDEA	KIROLA	2021. URTEKO EMAITZAK
<u>Real Sociedad</u>	<u>Futbola</u>	<u>Kopako txapeldunak (mutilak)</u>
<u>Kaiarriba</u>	<u>Arraunketa</u>	<u>Espainiako trainerillen txapelduna (emakumeak)</u>
<u>Donostia Arraun Lagunak</u>	<u>Arraunketa</u>	<u>Ligako txapelduna</u> <u>Kontxa banderako txapelduna (emakumeak)</u>
<u>CD Gimnasia Ritmica Donosti</u>	<u>Gimnasia erritmikoa</u>	<u>Brontzea Espainiako txapelketan (emakumeak)</u>
<u>Txuri Berri</u>	<u>Curling</u>	<u>Espainiako txapelduna (BG)</u> <u>Espainiako txapelduna (BM)</u> <u>Munduko txapelketan parte hartzea</u>
<u>Bera Bera</u>	<u>Eskubaloia</u>	<u>Ligako txapelduna (emakumeak)</u>
<u>Real Sociedad</u>	<u>Atletismoa</u>	<u>Brontzea Espainiako Kopan (mutilak)</u>



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Donostia Kirola

MEMORIA 2021




**KUDEAKETA ARDURATSUA
ETA IRAUNKORRA**



DONOSTIA KIROLAREN PLANGINTZA ESTRATEGIKOA

PLANGINTZA ESTRATEGIKOAREN ESKEMA

Donostia kirola



KUDEAKETA AURRERATUARI
BRONTZEKO AINTZATESPENA





KUDEAKETA EKONOMIKOA

2021eko aurrekontu arruntaren balantzea

2020. urteko gastuen aurrekontuaren egikaritze-ehunekoa % 77,10ekoa izan zen, 2021. urtekoa baino pixka bat handiagoa, baina aurreko urteetan erregistratutakoa baino txikiagoa.

Diru-sarreraren egikaritze-ehunekoari dagokionez, nabarmen egin zuen gora 2020. urtearekin alderatuta, baina ezarritako helburutik (% 100) 17 puntura geratu zen, harpidedunen eta ikastaro-egileen beherakadak eta murrizketen eta pandemiaren ondoriozko zenbatekoen itzulketek eragindako diru-sarreraren zenbateko txikiagoagatik.





KUDEAKETA EKONOMIKOA

Donostia Kirolaren autofinantzaketa

2021ean, Donostia Kirolaren autofinantzaketaren ehunekoa % 49,6 izan da, 2020an baino 3 puntu gutxiago. Autofinantzaketa funtzionala (diru-laguntzak zenbatu gabe), bestalde, 4 puntu jaitsi da 2020. urtearekin alderatuta, eta % 53,55ean kokatu da.

2021ean aurreko urtean baino 1.000.000 € gehiago zenbatu dira, % 13, nahiz eta zenbatekoa 2019an sartutakoa baino % 10 txikiagoa izan. Hala ere, langileen eta mantentze-lanen kostuen igoerak, bereziki garbiketa-kontratu berriaren eta Loiolako Erriberako eta Zuhaiztiko kontratuen ondorioz, ezarritako helburua ez betetzea ekarri du.






PERTSONAK, DONOSTIA KIROLAREN TALDEA



Pertsonen kudeaketaren arloan ezarritako helburu nagusietako bat Donostia Kirolan lan egiten duten pertsonen bitarteko langileen tasa altuak behera egitea da, egindako erretiroen eta hainbat urtetan enplegu publikoaren eskaintzarik egiteko ezintasunaren ondorioz. Pandemiak 2020an ekarri zuen geldialdiaren ondoren, aurten instalazioen arreta eta kontroleko 21 lanpostu bete dira, eta, beraz, barnetasun-tasa % 29ra jaitsi da.

Bestalde, 2020an egindako lan-giroari buruzko inkestak erakusten du pertsonen balorazioak hobetu egin direla hainbat eremutan (barne-komunikazioa, lan-giroa, lan-baldintzak).





PERTSONAK, DONOSTIA KIROLAREN TALDEA






PERTSONAK, DONOSTIA KIROLAREN TALDE

Donostia Kirolak bi urtean behin neurtzen du entitatean lan egiten duten pertsonen pertzepzioa, lan-giroari buruzko inkestaren barruan. Azken inkesta 2020an egin zen, eta adierazle gehienek hobera egin zutela adierazi zuen, bereziki gogobetetze-indize orokorrak, lehen aldiz 10etik 7ra iritsi baitzen.

Lan-giroa eta lan-baldintzak nabarmentzen dira 10etik 7tik gorako notekin.


2020ko lan giroari buruzko inkesta



DONOSTIA KIROLA, KONPROMISO SOZIALEKO ERAKUNDEA

Ardatz estrategikoetako baten arabera, Donostia Kirolak hainbat ekimen garatzen ditu pertsona guztiek kirola egiteko aukera izan dezaten, beren baldintza ekonomiko edo sozialak edozein direla ere, eta, horrez gain, kirolaren bidez pertsonen bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten programak garatzen ditu. Horren adibide gisa, Kirol Txartela Solidarioa, Kirol Txartela Soziala, harrera-etxeekin egindako akordioak, errefuxiatuak artatzen dituzten erakundeak, eta abar. Jarduera horiek guztiak Balantze Soziala deitu dugunari gehitzen zaizkio, hau da, zuzenean bideratutako zenbatekoen eta ekimen horiengatik sartzeari uzten zaien baturari.

Adierazle horren gorakada etengabea izan zen 2020. urtera arte, eta, orduan, behera egin zuen egindako ekintza kopuru txikiagoagatik, baina 2021ean berreskuratu egin da, 500.000 €-tik gora.






KIROLEAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEAREN ALDEKO APUSTUA

Euskara hutsezko ikastaroetan parte hartzeak etengabe gora egiten jarraitzen du, % 60ko helburua gaindituta.



Datu hori alde batera utzita, Kirol Ekintzak Kanpainan, euskara hutsez emandako ikastaroez gain, ikastaro bakoitzaren euskara-maila aztertzen da, eskolak talde bakoitzaren hizkuntza-errealitatera egokitzeko.







INGURUMENAREKIN DUGUN KONPROMISOA

Donostia Kirolak eskaintzen dituen kirol-zerbitzu eta -instalazioen ingurumen-iraunkortasuna da gure helburu estrategiko nagusietako bat. 2016an energia kudeatzeko lehiaketa berria esleitzeak kontsumoak nabarmen murriztea ekarri zuen, ekipoak berritzeko egindako inbertsioengatik, eta, bereziki, CO2 isurketak murriztea, kontratatutako energia guztia iturri berriztagarrietatik baitator.



INGURUMENAREKIN DUGUN KONPROMISOA

Erabilera bakoitzeko CO₂, energia eta ur isurien datuek joera aldatu dute 2020an; izan ere, instalazioen erabilera txikiagoak eta kontsumo finkoen mantentzeak eragin dute adierazle erlatibo horiek erregistro okerragoa izatea.





DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Donostia Kirola

MEMORIA 2021




ERABILTZAILEEN GOGOBEKETZEA HELBURU GISA



GURE ERABILTZAILEEN GOGOBETETASUNAREN BILA

Herritarrei eskaintzen diegun zerbitzua etengabe hobetzea da gure kudeaketa-ereduaren oinarrietako bat. Horregatik, interes-taldeen asebetetzea neurtzen dugu aldizka, haien eskaerak hobeto antzeman ahal izateko eta hobekuntza-planak egin ahal izateko, haien premia garrantzitsuenei erantzuteko.


Zentzu horretan, Kirol Ekintzak eta UDA Kanpainak balorazio altuenak jaso dituzte Donostia Kirolak eskaintako zerbitzu guztien artean, 10etik 8 inguruko balorazio globalekin.



GURE ERABILTZAILEEN GOGOBETETASUNAREN BILA

Kirol Txartelean abonaturako pertsonen balorazioei dagokienez, azpimarratzekoa da galdetu diren ia alderdi guztiek oso ongiko nota gainditzen dutela, mantentze-lanek eta gimnasioek izan ezik, horiek 6ko mailan geratzen baitira.



Garbitasunak eta langileek jasotzen dituzte baloraziorik altuenak.





GURE ERABILTZAILEEN GOGOBETETASUNAREN BILA

Kirol-jardueren kanpainei dagokienez, balorazioak altuak dira, batez ere udako UDA Kanpainaren kasuan. Bi kanpainetan, baloraziorik onena ikastaroetako begiraleek lortu dute, eta, ondoren, informazio- eta izen-emate prozesuek.







GURE ERABILTZAILEEN GOGOBETETASUNAREN BILA

Kluben eta ikastetxeen balorazioak, oro har, gainerako erabiltzaileenak baino zertxobait txikiagoak dira, baina joera ere positiboa da. Kirol-kluben kasuan, batez besteko balorazioa 10etik 7ra iritsi da, eta web-a, izapideak edo instalazioen garbitasuna bezalako gaiak nabarmendu dira.


Ikastetxeek, bestalde, bereziki baloratzen dute jasotako informazioa, langileen arreta eta instalazioen garbitasuna. Baloraziorik txikiena diru-laguntzen zenbatekoek dute.



HERRITARREKIKO KOMUNIKAZIOA, HURBILTASUNAREN ETA GARDENTASUNAREN BERME GISA

Herritarrekiko komunikazioa etengabe hobetzea eta Donostia Kirolarekiko harremana erraztea da erakundearen helburu estrategikoetako bat. Horregatik, azken urteetan kanal anitzeko komunikazioa jarri da abian (webgunea, buletin digitalak, instalazioetako pantailak, sare sozialak), eta Donostia Kirolak eskaintzen dituen izapide eta zerbitzu nagusiak digitalizatzeko prozesua garatu da. Horren ondorioz, lau urtetan, izapide guztien % 70 (erreserbak, ikastaroetan izena ematea, Kirol txartelaren altak, Kirol Ekintzak Aukeran) on-line egiten dira.

Prozesu honetan garrantzi berezia du 2020an webgune berria martxan jartzeak, gailu mugikorretara egokitua, eta webguneko Abonatu Eremuaren garapen garrantzitsuarekin.



HERRITARREKIKO KOMUNIKAZIOA, HURBILTASUNAREN ETA GARDENTASUNAREN BERME GISA

Web berria 2020an martxan jartzeak, online zerbitzu berriak gehituta, jarduera handiagoa eragin du webgunean, eta horrek Donostia Kirolak eskaintzen dituen zerbitzuak eta jarduera fisikoaren eta kirolaren onurak zabaltzen laguntzen du.

Tresna horren osagarri, sare sozialetan komunikatzeko estrategia bat garatzen da, herritarrekiko hurbiltasuna, berehalakotasuna eta interakzioa sustatzen dituen.

